

LITEKEENA AL DA MATERIA PREXISTENTERIK GABE ZERBAIT EGITEA?

Lehenago egunean tabernan geundela batek burla eta barre egiten zion Genesis liburuari horregatik. Nik ez nuen ezer erran, baina nire pentsamendu katolikoa pixka bat nahasia bihurtu zen. Egunak iragan dira geroztik, eta dagoeneko badut erantzuna ahobero hari. Jesusen ogien eta arrainen signoan topatu dut erantzuna, eta diot nik ezen bai, badela litekeena materia preexistenterik gabe zerbait egitea. Gu primarioki materiazkoak gara, humanoak gara, kreazioaren ezagutzen dugunaren izaki argienak, eta ez dugu ikasten inondik inora halakoaren posibilitaterik, baina gure historian bada ageri pertsonaia bat, Jesus, zein bestela!, zeinak egiten ahal zuen halakorik.

Orain san Joanen ebanjelioan bilatzera noa pasarte hura. San Joanen ebanjelioa da niretzat filosofikoena, eta horregatik zuzentzen naiz zalantza barik hara nire ikerketa txiki honetan. Nik azken batean filosofia egiten dihardut, ez dut teologiarik egiten eta bai filosofia katolikoa. Hori da behintzat nire lana gaur egun eta nire helburua ere.

Hara hemen, topatu dut: “Gero, Galileako (edo Tiberiadeseko) lakuaz beste aldera joan zen Jesus. Eta jende ainitz jarraitzen zitzaion, eriak sendatuz egiten zituen mirakuluzko seinaleak ikusten baitzituzten. Jesus mendirat igan eta han jarri zen bere dizipuluekin. Hurbil zen Bazko, juduen besta nagusia. Jesusek, jende ainitz zetorkiola ikusirik, Filipi erran zion:- Non erosiko ginuke ogia, jan dezaten?Frogatan ezartze-

ko erran zion hori, ongi baitzekien berak zer egingen zuen. Filipek ihardetsi: Berrehun denarioren ogi ez litzateke aski bakotxak puska bat ukaiteko. Bere dizipuluetarik batek, Simon Petriren anaia Andrek, erran zion:- Bada hemen bost garagar ogi eta bi arrain ttipi dituen mutiko bat; bainan zer da hori hainbesterentzat? Jesusek jendea jarrarazteko manatu zioten dizipulueri. Belar ainitz bazen leku hartan, eta jarri ziren denak. Bost milako bat gizon bazen. Jesusek ogiak hartu eta, ezker onezko otoitza egin ondoan, partekatu zituen jarririk zaude-nen artean; berdin arrainak ere, nahi zuten bezainbat. Eta ase zirenean, Jesusek dizipulueri erran zioten: “Bil hondarrak, deus gal ez dadin”. Bildu zituzten, bada, eta bost garagar ogie-tarik jan zuteneri gelditu zitzaizkioten ondarrez hamabi sare bete zituzten. Jesusen mirakuluzko seinale hura ikusirik, jendeek zioten: “Hau da zinez mundurat etortzekoa zen profeta”. Jesusek baitzakien indarrez eremanen zutela errege egiteko, mendira joan zen berriz, bakarrik. “

Ondo ikusten da hemen momentu hartan materia preexis-tenterik ez dagoela hainbeste jenderi jaten emateko. Baina Je-susek denak asetuta laga zituen. Eta Jesus ez zen magoa ez eta zientifikoa ere. Ikusgarriak izaten dira magoen trukuak, eta ahalmen handia dago zientzia horretan, entretenitzekoa, aurrera egiteko, baina magoak beti behar du (sekula ez da aditu besterik) materia preexistentea. Eta berdin afirmatzen ahal da zientziaz, ahalmen handia dagoela haren aurrerape-nak imajinatzean, baina zientziak ere materia preexistentea behar du ezinbestean. Magiak eta zientziak, hor nonbait, beti dihardute kosmos material honen barruan.

Roman Garmendia